

Itsas bazterrean

Herria ezagutzen



2



ARGITARATZAILEA: Errenteriako Udala. Euskara Zerbitzua

EGILEA: Hik Hasi Euskal Heziketarako Aldizkaria (Arantxa Urbe)

MAKETAZIOA: Antza komunikazio grafikoa, SL

ILUSTRAZIOAK: Juan Luis Landa

ARGAZKIAK: Errenteriako Udal Artxiboa, Eugenio Figurski, Laureano Gordon, Indalecio Ojanguren, Luis Elberdin eta Hik Hasi

L.G: SS-1644-2009

Inprimatzailea: Antza komunikazio grafikoa, S.A.L.

OHARRA: 5. orrialdeko ilustrazioa *Orereta: argazkiak*, 1. *hiria* liburutik hartu dugu.

6., 7. eta 9. orrialdeko ilustrazioak Jon Graziak eginak dira.

10. orrialdeko ilustrazioak *Errenteria kondairan eta ipuin-zaharretan* liburutik hartuak dira, E. Martín Y. eginak.



Hainbat argazki dituzu hor behean. Horietako zeintzuk daude herrian?



BAI/EZ



BAI/EZ



BAI/EZ



BAI/EZ

Zer dakizu herrian ditugun aztarna horiei buruz?

.....

.....


.....

.....

.....

Gure herriak ere badu armarria.

Lagunduko al zenioke marrazkilariari armarriaren beste erdia osatzen?




Itsatsi hemen nahi duzun armarria.



Idatzi Oiartzun bailara osatzen zuten lau auzoen izenak.

Hiri-Gutuna



Hiri-Gutunak:

Herria harresiz inguratzeko agindu zuen.
Bailarako gainerako auzoetakoei bertan bizitzeko
agindu zien.
Herriari izena aldatu zion, VILLANUEVA DE
OIARSO ipiniz.

**BAILARAKO GAINERAKO BIZTANLEEK EZ ZUTEN
HIRI-GUTUNAK AGINDUTAKOA ONARTU.
LISKARRAK IZAN ZIREN URTE LUZEETAN.**

Itsas merkantzien errentak jasotzen zituzten
herrian. Horregatik, izen hau zabaltzen hasi zen.

E _ _ _ N _ _ _ A

Begira noraino iristen
ziren itsasontziak!
Portua Foru plazan
bertan zegoen.

Foru plaza
itsasontziz betea!!!

Harresien barruan herria aberasten hasi
zen itsasoari esker.
Lana sortu zen eta jende gehiago etorri
zen bizitzera. Herria handitzen ari zen.



1532. urtea

Ezagutzen dituzun elementuak kolorezta itzazu.
Idatzi margotu dituzun elementuen izenak.

.....

.....

.....

.....

.....



1923. urtea



1610. urtea




Jon Gracia

Nolakoa zen gure herria?


.....

.....

.....



1923. urtea



1923. urtea



Herria lapurretetatik eta erasoetatik babesteko harresiz inguratu zuten.

Harresiak bost ate zituen. Horietatik bi lurrekoak ziren: Nafarroakoa eta Frantziakoa.

Beste hirurak, Ugarritzakoa, Errebalekoa eta Itsasoko ateak ziren.

Ate bakoitzaren ondoan, haiek zaindu eta babesteko, dorretxeak zeuden. Bastioi bat ere bazuen, lurreko bi ateak hobeto zaintzeko.

Hasiera batean herriak bost kale zituen: Goiko kalea, Beheko kalea, Erdiko kalea, Eliza kalea eta Orereta kalea.

Beranduago, herria handitu zenez, harresiak zabaldu eta beste hiru kale eraiki zituzten: Santxoenea, Santa Maria eta Kapitanenea.

Herria dotorea zen. Hainbat dorretxe zituen eta kaleetako lurra harrizko harlauzazkoa zen, Ugarritzako zubia bezala.

Horregatik, hainbat kaletan gurdiek debekatua zuten ibiltzea, gurpilekin zorua honda ez zezaten.

Mikelazuloko pasabidetik gora ibiltzen ziren Nafarroa aldera zihoazen guriak.

Nahikoa komeria ibiltzen zituzten handik pasatzeko, pasabide estua baitzen!

Harresietatik kanpo, Madalenako ermita zegoen. Garai hartan, legenardunen ospitalea zen.

Irakurri arretaz testua eta galderak erantzun:

1

Zergatik egin zituzten harresiak?

.....

.....

2

Zenbat ate zituen harresiak?

.....

.....

3

Zein dira, zure ustez, herriko kalerik zaharrenak?

.....

.....

4

Zergatik zen herria dotorea?

.....

.....

5

Zer zegoen harresietatik kanpo?

.....

.....

Marraskia behatuz esango al
zenuke nola eraikitzen zituzten
itsasontziak?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....



Ordenatu hitz hauek eta ontziolei buruz gehiago jakingo duzu.

konpontzen egiten Ontzioletan itsasontziak eta zituzten.

.....

ontzigintza Euskal Herriko gune garrantzitsuenetakoa Gure zen. herria,

.....

batelekin arrantzatzen eta Arrantzaleek zuten. txalupekin

.....

zituzten. arrainak baleak eta Arrantzaleek harrapatzen

.....

zeuden: Ugarritzakoa, Lonjakoa, Erriberakoa, Madalenakoa, ontziola Basanoagakoa. Bost eta

.....

.....

Saia zaitez gurutzegrama osatzen irudietako eta esaldietako itsasgizonen abizenekin.



Pedro Zubiaurre
Itsas jenerala.



Matxin Uranzu
Itsas jenerala.



Matxin Zamalbide
Itsas jenerala.

Kapitaina zen Joanes Isasti.

Sevillara burdina zera-
man Juan Zarcoren itsa-
sontzia hondoratu zen.
Herriko 103 itsasgizon
zeramatzan, 13 izan ezik
denak ito ziren.

Herriko ontzioletan 29
galeoi egin zituen
Martin Amasak.

Kosmografo handia eta
kapitaina zen Martin
Zubieta. Magallaneseko
itsasarteko espedizioan
parte hartu zuen.



Marraz ezazu gehien gustatu zaizun
armarria.

Armarri hau helbide honetan dago:

.....

Armarri honetan aurkitu ditut:

.....

.....

.....

.....

Mari Zozaiakoa



Ni Mari Zozaiakoa naiz. Orain urte asko jaio nintzen, 1530ean.

Nire garaian herria harresiz inguraturik zegoen.

Biztanle gutxi bizi ginen eta denek ezagutzen genuen elkar.

Haur ginenean oso gogoko genuen Errebaleko atetik kaira joan eta hara iristen ziren itsasontziak ikustea: arrainak, mea eta oso urrutiko oihal eta gauza bitxiak ekartzen zituzten.

Gauetan ez zegoen argirik, ez kaleetan eta ez etxeetan ere. Horregatik, ilundu baino lehen joaten ginen etxera.

Han, sutondoan, Morrontxon eta Torrekuian bizi omen ziren mamuen istorioak eta sorginen ipuinak kontatzen zizkigun amonak: beldurrak akabatzen egoten ginen!

Sendabelarrak erabiltzen irakatsi zidan, baita ukenduak egiten ere.

Orduan ez geneuzkan orain dituzuen botikak, eta nik ahal nuenari laguntzen ahalegindu nintzen.

Baina behin, Katalina Idiazabalekoa eta haren alaba Madalen Arenederrakoa eta Madalen Larraigiñez nire adiskideekin batera sorginak ginela-eta salatu gintuen norbaitek.

Sorgin izateagatik epaitu gintuzten. Nire adiskideek zorte hobea izan zuten. Ni ez ninduten sutan erre, lehenago kartzelan hil nintzelako.

Benetan sorgina banintz erratz gainean hegan ihes egingo nuke, baina ez zen hala...



Asmatuko al zenuke amaiera polita duen ipuina Mari Zozaiakoarentzat?

Landareak eta animaliak mintzo ziren garaian, bazen...





Zein dagokio zeini?

UDALETXEA

Etxe horretako jabeak
itsasgizon ospetsuak ziren.

ZUBIAURRE
DORRETXEA

Zaharberritu ondoren
museoa bilakatuko da.

KAPITAIN ETXEA

Herritarrek bilerak egiteko
eraiki zuten.

MORRONTXO

Erdiko kalearen amaiera,
Frantziako atea zaintzen zuen.

TORREKUA


Nafarroako atea zaintzen zuen.



Zein elementu aldatu dituzte? Biribildu.



Nolakoak ziren antzina?



Aukeratu gustuko eraikuntza eta bildu ahal duzun informazioa.

IZENA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

ARGAZKIA



Mezu sekretua! Koloreztatuta dauden letrak elkartuz jakingo duzu gure uhartearen izena.

A-	🔪
E-	💀
I-	👤
O-	🍷
U-	🌴

🌴H/RT💀 G👤H👤N/K 🍷TS/S🍷 N B/D/🌴D💀 💀R, G🌴R/🍷
 💀Z D🍷G🍷 🌴R G/Z🍷T/N.
 🌴H/RT💀 G🌴ZT💀K B🍷Z/L, H/N 💀R💀 B/D/ /LTX🍷R
 B/T 💀ZK🌴T/T🌴T/
 B💀G-R/ Z💀N D-R💀N P-R/T/K! /LTX🍷RR/
 /🌴RK🍷T🌴 Z🌴T💀N B🍷N/ 💀Z Z🌴T💀N B🍷R/🍷NTZ/T
 G🍷RD💀.

— — — — —

Maialenek eta Xantik aurkitutako altxorra herrira ekarri zuten.



Ikusi al duzu, ba al dakizu non utzi zuten?

.....

.....

.....

.....

Hemendik aurrera elkarrekin ezagutuko dugu herria!

Hiribildua izendatu zenean, biztanle batzuk bizilekua aldatu eta hiribildura jaitsi ziren bizitzera.

Beste batzuk, aldiz, bere lurretan bizitzen jarraitu zuten.

Hiribilduko eta landako biztanleek lanbide desberdinak zituzten:

- **Hiribildukoak:** eskulanean, portuko eta itsasoko lanetan, merkataritzan eta ontzigitzan aritzen ziren, batik bat.
- **Landakoak:** nekazaritzan, abeltzaintzan eta oletan metalgintzan aritzen ziren.



Zenbait lanbide ez daude ongi kokaturik. Ea aurkitzen dituzun!

HIRIBULDUAN

Arrantzaleak
Arotzak
Olagizonak
Eltzegileak
Okinak
Zamaketariak
Zapatariak
Ehuleak
Harakinak
Garraiolariak
Artzainak
Ikatz garraiolariak

LANDAN

Ikazkinak
Jostunak
Aiztogileak
Arrain-gazitzaileak
Txapelgileak
Baserritarrak
Olajaunak
Ikazkinak
Abokatuak
Itsasontzien hornitzaileak
Arrain saltzaileak
Arraunlariak
Eskribauak

Hainbat lanbide gaur egun arte iritsi dira, beste batzuk, ordea, galdu ziren.



Zein lanbide daude gaur egun herrian?

.....

.....

.....

.....



Zure etxekoek zein lanbide dituzte?

.....



Eta zuk, zein lan egin nahiko zenuke?

.....



Portura iristen ziren itsasontziek mea ekartzen zuten herriko oletara.
Ola horietan burdina egiten zuten.
Burdinola asko zeuden herrian, urte batzuetan 72 izatera iritsi ziren.
Oiaztzun eta Pontika errekaaren ondoan eraiki zituzten.
Horietako batzuk ziren: Gabiriola, Renteriola, Gabiola eta Suerrin.
Fanderiako errota dagoen lekuan zegoen Renteriola.

Ola garrantzitsuena eta handiena Añarbekoa izan zen.

Langile asko zituen Añarbeko olak, horregatik auzoa eta baseliza eraiki zituzten bere ondoan.

Orain dena Añarbeko urtegiaren urpean dago.



Ezabatu olari ez dagozkion hitzak:

Sua, Auspoa, Ikatza, Ordenagailua, Labea, Mea, Kaskoa, Ura, Mailua, Kamioia, Garabia

ZABORRAK

Geroz eta jende gehiago zegoen, eta geroz eta hondakin eta zabor gehiago sortzen zituzten. Udal-ordenantzek debekatzen zuten arren, jendeak etxeetako eta itsasontzietako zaborrak ibaira edo portura botatzen zituen. Ondorioz, itsas azpia betetzen joan zen eta portua lehortzen. Eta gero, zer egin ote zuten ondorengo biztanleek zaborrarekin?



Hara
urte batzuk
beranduago " Joxe
Zakar" -ren ibilerak!

"Pekinetik haruntzago "zakarrak" izeneko zabortegia zegoen. Kaleetatik "zaborraren gurdia" pasatzen zen.

Gurdi horrek, bi gurpil zituen, tapak eta baita kanpaiatxo bat ere. Mando batek tiratzen zuen.

Jendeak egurrezko kaxoi batzuetan jaisten zuen zaborra etxetik. Txapazko sukaldeetan ahal zuten guztia erretzen zutenez, zaborretarako ia guztia errautsa zen. Horregatik, "zakarrak" lekuan ez zegoen usain txarrik".

Eta zuek, zer egiten duzue zaborrarekin?

.....

.....

.....

.....

Ba al dakizu zein bide egiten duen zaborrak?
Marrazkiz adierazi.



Zaborra bota



Zaborra kaleko zaborrontzian bota



Kamioiak zaborrontzitik bildu.



Eta zabortegian?.....



Zabortegian bota.

Herrian badago zabortegi handi bat: San Markoko zabortegia. Urtetan hara eraman dituzte gure zaborrak baina azkenean itxi egin zuten. Hainbat biztanlek ez zuten zabortegia nahi.



Zergatik ez ote zuten zabortegia nahi?

Taldean eztabaidatu arazo horri buruz eta bururatzen zaizkizuen irtenbideak idatzi.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Gauza asko gertatzen dira gure inguruan; albisteak edo berriak dira.

Zein bidetatik jakinarazi daitezke?

Herrian baditugu hedabide batzuk. Ezagutzen al dituzu?

HERRIKO HEDABIDEAK

EGUNKARIA

HITZA: Euskaraz. Eskualdeko albisteak eskaintzen ditu, gure herrikoak bi orrialdeetan: www.oarsoaldekohitza.info.

IRRATIA

ZINTZILIK IRRATIA: euskaraz eta gaztelaniaz. Albistegia eta herriko jendeak egindako programez osatzen da. www.zintzilik.net

INTERNETEN

errenteria.net: Udal orria: albisteak, agenda, udal eta herriko informazioa.

Oarsoaldea.net: eskualdeko orria: turismoa, merkataritza, ekitaldiak...

Oarsoaldekohitza.info: Hitzaren edizio digitala. Eskualdeko eta herriko albisteak. Baita elkarrizketak, argazkiak, erreportajeak...


ALDIZKARIAK

ON: euskaraz. Hilabetekaria. Eskualdeko berriak eta erreportajeak eskaintzen ditu.

OARSO: euskaraz eta gaztelaniaz. Urtekaria. Herriari buruzko informazioa, gertakariak jasotzen ditu. Herriko jendeak idatzia.

ORERETA: euskaraz eta gaztelaniaz. Urtekaria. Herriari buruzko informazioa, gertakariak jasotzen ditu. Herriko jendeak eta taldeek idatzia.

BILDUMA: euskaraz eta gaztelaniaz. Aldizkaria. Udalak argitaratzen du gai zehatzei buruz.







Markatu esandakoak egia ala gezurra diren.

	EGIA	GEZURRA
Itsasoak garrantzi handia izan zuen.		
Harresiak ia herri osoa inguratzen zuen eta burdinezkoa zen.		
Harresiak bost ate zituen.		
Egungo Foru plaza portua zen.		
Udaletxea eta eliza eraikuntza modernoak dira.		
Ontziola eta burdinola oso garrantzitsuak zeuden.		
Herriko jendeak bulegoetan lan egiten zuen.		
Herriak nabigatzaile ospetsuak izan zituen.		
Herria harresitu aurretik han ez zen inor bizi.		
Foru plazako etxeek osatzen zuten itsasoko harresia.		



Jakingo al zenuke esaten zein eraikuntza edo leku diren hauek?





Herria ezagutzen

1
2
3
4
5
6

Nor ginen

Itsas bazterrean

Handituz

Gure altxorra

Orain, gu!

Etorriko direnak

www.ondarea-errenteria.net



Errenteriako Udala

